

**UDALBATZAK 2014KO MAIATZAREN 27AN
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila hamalauko maiatzaren 27ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira :

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis María DíEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKI ETXANIZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- M^a Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCÓN
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M^a Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bertan dago, egintza fedatzeko, Begoña BUENO BARRANCO idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Pedro ETXARRI OLLOKIEGI udal kontu-hartzailea.

1.- Udalbatzak 2014ko urtarrilaren 28an eta 2014ko apirilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurei dagozkien akten irakurketa eta onespena, egoki bada.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE
LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 27 DE
MAYO DE 2014**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 27 de mayo del año dos mil catorce, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ, los siguientes Concejales:

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis María DíEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKI ETXANIZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- M^a Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCÓN
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M^a Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Begoña BUENO BARRANCO.

Igualmente asiste el Interventor Municipal Pedro ETXARRI OLLOKIEGI.

1.- Lectura y aprobación en su caso de las actas correspondientes a las sesiones ordinarias del 28 de enero de 2014 y 29 de abril de 2014.

Idazkariak Udalbatzak 2014ko urtarrilaren 28an eta 2014ko apirilaren 29an egindako ohiko osoko bilkurei dagozkien akten berri eman ondoren.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dituzte.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (368 zk.tik 476 zk.ra) Zinegotzi-ordezkariek (555 zk.tik 745 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Idazkariak ondorengo ebazpenen berri eman du: Alkatetzarenak (368 zk.tik 476 zk.ra) Zinegotzi-ordezkariek (555 zk.tik 745 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Kontuhartzaileak egindako txostenak.

Kontuhartzailearen txosten hauen berri eman da:

- Kreditu-aldaketa, 2014-KALD-000005-00 erreferentziakoa, 2014ko maiatzaren 15ekoa.
- Kreditu-aldaketa 2014-KALD-000002-00 erreferentziakoa, 2014ko maiatzaren 23koa.

Mintzatu dira:

* Kontuhartzaileak adierazi du hemendik aurrera, arrazionalizazio-legearen arabera, aurrekontuaren aldaketak egiten badira edo aurrekontuaren onarpenak, edo plan ekonomiko bat atera behar dela edo bere txostena plenora ekarri behar dela. Beraz, hemendik aurrera puntu berri bat sartuko da, kontuhartzailearen txostenak. Eta gaurko puntuan sartu dira hilabete honetan egon diren aurrekontuaren txostenak, egonkortasunaren txostena eginda.

Leídas por la Secretaria las actas correspondientes a las sesiones ordinarias del 28 de enero de 2014 y 29 de abril de 2014.

Se aprueban sin observación alguna.

2. Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 368 al 476, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 555 al 745 ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 368 al 476, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 555 al 745 ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

3. Informes del Interventor.

Se da cuenta de los siguientes informes emitidos por el Interventor Municipal:

- Modificación de Créditos, referencia 2014-KALD-000005-00, de fecha 15 de mayo de 2014.
- Modificación de Créditos, referencia 2014-KALD-000002-00, de fecha 23 de mayo de 2014.

Se producen las siguientes intervenciones:

* El Interventor señala en euskera que de ahora en adelante, con arreglo a la ley de racionalización, cada vez que se realice una modificación de crédito o se aprueben presupuestos, hay que sacar un plan económico o traer su informe al pleno. Por lo tanto, de ahora en adelante se introducirá un nuevo punto, informes del interventor. En el punto de hoy se han incluido los informes presupuestarios de este mes, con sus informes de estabilidad.

* Rodríguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du bere taldeak hau adierazten duela gai ekonomiko horien inguruan: Udalbatzaren gehiengoak Plan Ekonomiko Finantzarioaren aurka azaldu zen eta, hala ere, Gobernu Batzarrean onartu da, gobernu-taldearen joko immoral bikoitza agerian utziz; ez dituzte Udalbatzaren gehiengoaren erabakiak onartzen eta aurrera eramaten dituzte beren plan ekonomikoak, gutxiengoarekin eta atzeko atetik onartuta. Bere garaian adierazi zuten ez zela gastuaren araua betetzen, baina gaur, kontuhartzailearen txostenean ikusten da % 32,01ean ez dela betetzen, nahiz eta aurreikusitako helburuek esaten duten gastu konputagarriaren diferentziak ez duela % 1,5 baino handiagoa izan behar. Saldu zaie bete beharreko hiru baldintzetatik gastuarena soilik ez zela betetzen, baina gaur kontuhartzailearen txostenak adierazi du gastuarenaz gain aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburu guztiak ez direla betetzen, eta horregatik ez zuen onartu plana bere taldeak. Ondorioetan, 3. puntuak kontuhartzaileak dio kredituak aldatzeko espedienteak kontuan izanda toki-erakunde honek ez dituela betetzen aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko 2014rako helburu guztiak eta gastu-araua gaineratzen du. Beren ustez gobernu-taldea tematuta dago hauteskunderi begira inbertsio-obra egitearekin, Udalaren iraunkortasun-ekonomikoan pentsatu gabe, eta horrek eramango du soberakina gastatzera eta bere proiektu guztia kredituetan oinarritzera, interesak errenteriar guztion poltsikoaren kontura bikoiztuta. Ez dira gai obra horien kargak kanpoko ekarpen ekonomikoekin aritzeko, alegia beste erakunde batzuenekin, eta gehiena gure diruarekin mantendu behar da edo, hobe esanda, guztion artean ordaindu behar ditugun finantza-entitateenarekin. Duela gutxi Txasko jauna Ogasuneko ordezkariak adierazpen batzuk egin

* Interviene el Sr. Rodríguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) manifestando que su Grupo sigue manifestándose sobre estos temas económicos en el siguiente sentido: la mayoría de la Corporación ya manifestó su posición al Plan Económico Financiero y a pesar de ello se ha aprobado en Junta de Gobierno demostrándose el doble juego inmoral que realiza el Equipo de Gobierno, donde no aceptan las decisiones mayoritarias de la Corporación y llevan adelante sus planes económicos con la aprobación minoritaria y por la puerta de atrás. Ya manifestaron en su momento que no se cumplía la regla de gasto, pero hoy en el informe del Interventor se dan cuenta de que se incumple hasta el 32,01%, cuando los objetivos previstos hablan de que la variación del gasto computable no sea superior al 1,5%. De los tres supuestos que había que cumplir se les ha estado vendiendo que solo se incumplía el de gasto, pero hoy el informe del Interventor también indica que no se incumple sólo el de gasto, sino también que no cumple todos los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, y por ello su Grupo no aprobó el Plan que se les presentaba. En las conclusiones, en el punto 3 dice el Interventor "teniendo en cuenta el expediente de modificación de créditos, esta entidad local no cumple todos los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera para 2014" y agrega "y regla de gasto". Entienden que la obsesión del Equipo de Gobierno de realizar obras de inversión con carácter electoralista sin pensar en la sostenibilidad económica del Ayuntamiento va a llevarle a gastarse el remanente y a basar todo su proyecto en créditos duplicando los intereses a costa del bolsillo de todos los errenterianos. No son capaces de aliviar las cargas que suponen dichas obras con aportaciones económicas externas, o sea de otras instituciones, haciendo que con ello se tenga que sustentar la inmensa mayoría con nuestro dinero, o mejor dicho,

zituen prentsan egoera ekonomikoaz harro agertuta, soberakinez arinkeriaz hitz eginda, eta horrek egoera deserosoren bat eragin du, adibidez, langileen artean, ELA sindikatuaren bidez. Baina are gehiago, ausartu da esatera enpleguan inbertituko dela eta gainerakoarekin gainontzeko talde politikoekin adostutako proiektuak burutuko direla, guztiek dakitenean hori ez dela izan ohi beren praktika eta ez zela egia esaten ari, errealitatea manipulatzeko ari zela, kontuhartzaileak gaur mahai gainean jarri duen txostenean argi ikusten den moduan. Bere kudeaketa ona dela salduko dizue, lehen egiten zena kritikatuko du, baina errealitatea burugogorra da, lehen kanpoko dirua ekartzen baitzen obrak ordaintzeko -froga daiteke- eta gaur egun kreditura jotzen dute, horrek suposatzen duen kostu handiagorekin -eta hori ere froga daiteke-. Beraz, bere taldeak lehen egunean bezalaxe ikusten du gai ekonomiko-finantzarioaren eta planaren bidez egiten ari den guztia.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) adierazi du, aipatzearren, hemen txostenaren zati bat aipatu dela txostenak gauza gehiago esaten dituela, eta berak beste zatia ere irakurri du, konklusioa, konkretuki (gaztelaniaz): kredituak aldatzeko espedientea kontuan izanda, toki-erakunde honek ez ditu betetzen aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko 2014rako baldintza guztiak eta gastu-araua. Beraz, toki-entitate hau behartuta egongo da, hasiera batean, plan ekonomiko-finantzario bat onartzera. Gastu-araua ez da bete altxortegiko soberakina kredituak sartzeko erabili delako. Hala eta guztiz ere, entitate honek onartua du plan ekonomiko-finantzarioa, eta indarrean dirau. Horrela, bada, espediente honen ondoriozko

con el de las entidades financieras que debemos pagar entre todos. Hace unas fechas el Delegado de Hacienda, Sr. Txasko, hacía unas manifestaciones en prensa vanagloriándose de la situación económica que realizaba, hablando de remanentes con una ligereza que ha provocado alguna situación incómoda, el caso de los trabajadores a través del Sindicato ELA. Pero no, se ha atrevido a más, a decir que con ello se iba a invertir en empleo y que con el resto se realizarían proyectos consensuados con el resto de los Grupos Políticos, cuando todos saben que esa no es la práctica que les caracteriza y que no es verdad lo que manifestaba, ya que estaba manipulando la realidad, como se ve claro en el informe que pone hoy sobre la mesa el Sr. Interventor. Les venderá la bondad de su gestión, criticará lo que se hacía antes, pero la realidad es tozuda, ya que antes se traía dinero externo para costear las obras, como es demostrable, y hoy ven cómo se acude al crédito costándoles más, que igualmente será demostrable. Con lo cual su Grupo, todo lo que se está realizando a través del tema económico financiero y del Plan, lo siguen viendo de la misma forma que lo veían desde el primer día.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde en euskera que se ha comentado una parte del informe, pero éste dice más cosas y va a leer otra parte del mismo, concretamente de la conclusión: "teniendo en cuenta el expediente de modificación de créditos, esta entidad local no cumple todos los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera para 2014 y regla del gasto. por lo tanto, esta entidad local estaría obligada, en principio, a aprobar un plan económico-financiero. La regla de gasto se incumple por la utilización del Remanente de Tesorería para la financiación de la Incorporación de créditos. No obstante, esta entidad tiene aprobado el plan económico-financiero, el cual sigue en vigor. Por lo tanto, la obligación derivada del presente expediente

betebeharra (plan ekonomiko-finantzarioa egitea) beteta dago plan horrekin, han aurreikusitako helburuak betetzen ari diren neurrian. Jarraian, adierazi du berak uste duela horrekin argia dela, hau da, plan ekonomiko-finantzario bat eskatzen da, plan ekonomiko-finantzario hori onartua dago, plan ekonomiko-finantzario horretan markatzen diren helburuak, hemen esaten denaren arabera, betetzen dira, eta beraz, dagokien tokian daude. Ez dago zentzu horretan egoera katastrofistarik. Gainontzekoan, ez da sartuko. Uste du gestio ekonomikoaren emaitzak onak direla, horrek ematen diela inbertsioak eta bereziki garapen sozioekonomikoan eta lanaren sorkuntzan inbertsioak egiteko aukera, eta horrela jarraituko dutela. Printzipioz, uste dute gestio aldetik eta diruaren kontabilitate aldetik egoera askoz hobean daudela, duela urtebete baino.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du hondoan ez dela sartuko baina esango duela Plan Ekonomiko Finantzarioa osoko bilkurara ekarri zenean nahiko zalantza zeudela lortu nahi zenaren inguruan, edo zertarako tresna izango zen. Denborarekin, argitu zen, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen eta gaur puntu honetan agerian jartzen dena da ondo dagoela puntu hori aurrerantzean gai-zerrendan sartzea, kontu-hartzaileak esan duen moduan; gauza bat eta bestea jarri eta koadratzeaz gain, garrantzitsua da onartutako plan ekonomiko-finantzarioa kontrastatzea eta horren jarraipena egitea, bilakaera ikustea. Plan hori betetzeak, eta ez onartzeak bakarrik, zehaztuko baitu norabide onean gabiltzan ala ez. Horrela, bada, adierazi behar du alde batera geratu dela Plan Ekonomiko Finantzarioa onartze hutsarekin agortu denaren ideia, eta jarraipen zorrotza egin behar zaiola.

(elaboración de un plan económico-financiero) queda cubierta con el citado plan, en la medida en que se están logrando los objetivos allí previstos". Continúa señalando que cree que es claro con ese tema, que se requiere un plan económico-financiero, que se ha aprobado un plan económico-financiero, los objetivos establecidos en dicho plan económico-financiero - según se dice aquí- se cumplen y, por lo tanto, están donde tienen que estar. En ese sentido no hay ninguna situación catastrofista. En lo demás no va a entrar. Cree que los resultados de la gestión económica son buenos, que eso les permite realizar inversiones, especialmente en desarrollo socio-económico y en la creación de empleo, y que continuarán en la misma línea. En principio, creen que la situación en lo referente a la gestión y a la contabilidad monetaria es mucho mejor que la de hace un año.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifiesta que sin entrar al fondo, sí señalar que cuando se trajo al Pleno el Plan Económico-Financiero se hizo con bastantes dudas sobre cual era el objetivo que se pretendía cumplir con él, o para qué iba a servir a modo de instrumento. Con el tiempo se fue aclarando, fue aprobado por la Junta de Gobierno Local y lo que hoy se pone de manifiesto en este punto, que además bienvenida sea la inclusión de este punto en lo sucesivo como ha dicho el Interventor, es que lejos de ser un plan económico-financiero que podía poner una cosa como la otra y que se cuadraba, es importante contrastar y hacer un seguimiento del Plan Económico-financiero aprobado, con la evolución del mismo. Porque su cumplimiento, y no sólo su aprobación, va a determinar que se vaya en la buena dirección o no. Con lo cual tiene que manifestar que aquello de que el Plan Económico-financiero se agota en su aprobación misma ha quedado descartado y se impone un seguimiento estricto del mismo.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) adierazi du kontuhartzaileak fiskalizatzen dituela beti gastuak, kontuhartzaileak egiten dituela txostenak eta kontuhartzaileak esaten duela Plan Ekonomiko Finantzarioaren araberakoa dela.

Mintzaldiak amaitu dira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. 2014/05/21ean Tokiko Gobernu Batzarrak "Lecuona okindegia zenaren udal-eraikinari izendapena eta helbidea emateko proposamena"-ri buruz hartutako akordioaren berri ematea.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2014/05/21eko erabaki honen berri eman da:

Lecuona aintzinako okindegiaren udal eraikinaren izendapena eta helbideratzea zuzenki definitu behar dela kontuan izanik, hau da hainbat kuestio direla eta (errolda, ondasun higiezin zerga, jarduera lizentziak eta lehen erabilpen lizentziak, etab.), beharrezkoa da Udalbatzak aipatutako eraikina izendatzea eta helbideratzea.

Xabier Agirre udal arkitektoak txostena egin du 2014ko apirilaren 4an, eta bertan aipatutako eraikinari honelako izena eta helbidea ematea proposatzen du:

Izendapena: "Lecuona Arte Eszenikoen Zentroa"

Helbidea: Ugarritza etorbidea, 1 zkia.

Kontuan izanik 2014ko otsailaren 14an Alkatezaren

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señala que en todo caso es el Interventor quien fiscaliza los gastos, es el Interventor quien está informando y es el Interventor quien dice que se ajusta al Plan Económico-financiero.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno queda enterado.

4. Dar cuenta del acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 21/05/2014 relativo a "Propuesta para asignación de denominación y dirección del edificio municipal de la antigua panificadora Lecuona".

Se da cuenta del siguiente acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 21/05/2014:

"Ante la necesidad de definir correctamente la denominación y dirección del edificio municipal de la antigua panificadora Lecuona, en relación con diversas cuestiones (Padrón, Impuesto de bienes inmuebles, licencias de actividad y de 1ª utilización, etc.), es preciso que por parte de la Corporación se asigne la necesaria denominación y dirección a dicho edificio.

El arquitecto municipal Xabier Agirre, ha emitido informe con fecha 4 de abril de 2014, en el que propone la siguiente denominación y dirección al mencionado edificio:

Denominación: "Centro de Artes Escénicas Lecuona".

Dirección: Avenida Ugarritza, nº 1

Considerando lo dispuesto en el Decreto de Alcaldía

Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean hainbat kompetentzia delegatu zirela.

Kontuan izanda 2014ko apirilaren 16an egindako Tokiko Gobernu Batzarraren bileran gai hau mahai gainean utzi zela, gaiari buruz iradokizunak aurkezteko aukera izateko, gaur arte proposamenik aurkeztu ez delarik.

Gai honen berri eman zen 2014ko apirilaren 8ko Hirigintza batzordean.

Hirigintzako Ordezkararen proposamenez,

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

ERABAKIDU

1.- **Izendatzea** Lecuona aintzinako okindegiaren udal eraikina honelako izenarekin:

Izendapena: **“Lecuona Arte Eszenikoen Zentroa”**.

Helbidea: Ugarritza etorbidea, 1 zkia.

2.- **Jakinaraztea** erabaki hau bere ziurtasunerako behar diren hainbat erakunde eta departamentuei.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5. Proposamena: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, Errenteriako bake-epaile titularra izendatzeko.

de fecha 14 de febrero de 2014, de delegación de competencias en la Junta de Gobierno.

Visto que el tema quedó sobre la mesa en la sesión de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de abril de 2014, al objeto de posibilitar la presentación de sugerencias sobre el tema, sin que hasta la fecha se haya producido propuesta alguna.

Visto que se ha dado cuenta en la Comisión de Urbanismo de fecha 8 de abril de 2014.

A propuesta del Delegado de Urbanismo,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

ACUERDA

1º.- **Denominar** al edificio municipal de la antigua panificadora Lecuona como:

Denominación: **“Centro de Artes Escénicas Lecuona”**.

Dirección: Avenida Ugarritza, nº 1

2º.- **Comunicar** el presente acuerdo a cuantos organismos y departamentos sean necesarios para su constancia."

El Pleno queda enterado

5. Propuesta al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de la persona para ser nombrada Juez de Paz titular de Errenteria.

EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernuko Idazkaritzak udal honi eskatu zion bake-epaile titular berria hautatu eta izendapen-proposamena egin dezan, hain justu orain izendatuta dagoenaren lau urteko epea amaitzear dagoelako.

2014ko otsailaren 12ko Toki Gobernuko Batzordeko bilkuran hartutako akordio bidez, merezimenduen lehiaketa-deia egin zen herri honetako bake-epaile titularra hautatzeko.

Lehiaketako oinarrien arabera, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideek adierazi eta justifikatutako merezimenduak baloratu ditu, eta ondorioz, erdietsitako puntuen arabera zerrenda egin.

Kontuan izanik lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak proposaturiko pertsonak Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan xedatutako lege-eskakizunak betetzen dituela bake-epaile titularra izateko, hain zuzen bere eginkizunak egiteko gaitua dagoelako edo bateraezintasunik ez duelako.

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzaren eskumena da bake-epaile kargua beteko duena hautatzea legezko baldintzak bete eta eskaera egiten dutenen artean, akordio hori Udalbatza osatzen duten partaideen gehiengo osoaren aldeko botoekin hartu behar delarik.

Giza Baliabide Saileko Teknikariak 2014ko maiatzaren 8an txosten juridikoa egin du. Idazkari Nagusiak bat dator txosten honekin.

Epaimahaiaren proposamena kontuan izanik.

Visto que desde la Secretaría de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco se ha solicitado a este Ayuntamiento que proceda a la elección y posterior propuesta del nuevo Juez de Paz Titular, por estar próximo a finalizar el período de cuatro años para el que fue nombrado el actual.

Resultando que por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 12 de febrero de 2014 fue convocado concurso de méritos para la selección de Juez de Paz titular de este municipio.

Resultando que de conformidad con las bases del concurso, el Tribunal Calificador ha valorado los méritos alegados y justificados por los concursantes, confeccionando una lista de candidatos por orden de puntuación.

Considerando que la persona propuesta por el Tribunal Calificador del concurso reúne los requisitos legales establecidos en la Ley Orgánica del Poder Judicial para desempeñar el cargo de Juez de Paz titular, no estando incurso en ninguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad previstas para el desempeño de las funciones judiciales.

Considerando que a tenor de lo dispuesto en el art. 101.2 de la Ley 6/1985, Orgánica del Poder Judicial, de 1 de julio, es competencia del Pleno Municipal acordar la elección del cargo de Juez de Paz entre las personas que reuniendo las condiciones legales así lo soliciten, debiéndose adoptar el acuerdo con el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros de la Corporación.

La Técnico de RRHH emite informe jurídico en fecha 8 de mayo de 2014, suscrito por la Secretaria General.

Vista la propuesta del Tribunal Calificador

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako Batzordeak aldeko txostena egin du.

Giza baliabideetako ordezkariak proposatuta.

Mintzatu da.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) adierazi du puntu hori baliatu nahi zutela jasota uzteko azken hamabi urteetan karguan egon den pertsonaren ibilbidea eta jardun ona. Beren ustez, pena da hizkuntzaren arazoagatik ezin jarraitu izatea; edonola ere, esker ona eta aintzatespena adierazi nahi dizkiote oraindik ere udalerrri honetako bake-epaile den Esteban Los Santos Barrenecheari.

Mintzaldia amaitu da.

Udalbatzak, aldeko 12 botoren gehiengoarekin (OE BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) eta 9 abstentziorekin (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, PP), alegia, Udalbatzaren legezko kideen gehiengo osoaren botoekin.

ERABAKIDU

1. **ALAZNE GOZALO GOICOECHEA andrea** hautatzea Errenteriako bake-epaile titular.

2. Udalbatzaren akordioa lurralde honi dagokion Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileari bidaltzea, hain zuzen izendapena egingo duen EAeko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari bidal diezaion horrek.

Visto el informe favorable de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Vista la propuesta de la Delegada de Recursos Humanos.

Se produce la siguiente intervención:

* Interviene el Sr. Acosta (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) manifestando que querían aprovechar este punto para dejar constancia de la trayectoria y el buen hacer de la persona que ocupaba el cargo hasta ahora y que lo ha ocupado durante los últimos doce años. Creen que es una pena que no pueda continuar por el problema lingüístico, pero en todo caso vaya por ello su gratitud y reconocimiento al todavía Juez de Paz de este municipio D. Esteban Los Santos Barrenechea.

Finalizada la intervención.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 12 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV) y 9 abstenciones (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, PP), que conforman la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación.

ACUERDA

1.- Elegir a **DÑA. ALAZNE GOZALO GOICOECHEA**, como Juez de Paz titular de Errenteria.

2.- Remitir el acuerdo plenario al Juez de Primera Instancia e Instrucción correspondiente a esta demarcación, para que lo eleve a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que efectuará el nombramiento.

6. Proposamena: Errenteriako Udalaren 2014. urterako lanpostu-zerrenda eta langile-plantila aldatzea.

Idazkari nagusiak irizpen hau irakurri du:

"Udalbatzak, 2014ko urtarrilaren 28an, 2014ko aurrekontuaren onespena zela-eta, onartu zuen Udal honetako langile-plantilla eta lanpostuen zerrenda.

Ondoren, udaltzaingoko agente lehenaren eta udaltzainaren hizkuntza-eskakizunak berrikusi dira eta egoki jo da lanpostu horien nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna 3. goarekin aldatzea.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari nahitaezko txostena eskatu zaio, eta proposamenarekin ados azaldu da hura.

Hala eta guztiz ere, antolamenduko eta aukerako arrazoiak direla-eta, komeni da momentu honetan soilik agente lehenaren hizkuntza-eskakizuna aldatzea.

Bestalde, 2014-03-28an, Isabel Sánchez funtzionarioak baja hartu zuen Udalean, bere borondatez erretiroa hartu zuelako. Beraz, egoki da Idazkaritzako azpisaileko egoera erregularizatzea, aipatutako funtzionarioak 2102 kodedun administrari postua betetzen zuelako, nahiz eta jabetzan iraungitzeko zegoen administrari laguntzaile postu bat izan, dagoeneko ezabatu dena. Beraz, aipatutako

6. Propuesta: modificación de la relación de puestos de trabajo y de la plantilla de personal correspondiente al año 2014.

Leído por la Secretaria General el siguiente dictamen:

"Con ocasión de la aprobación del presupuesto para el ejercicio 2014 el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 28 de enero de 2014, aprobó la plantilla de personal y la relación de puestos de trabajo de este Ayuntamiento.

Posteriormente, se ha procedido a revisar los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de agente primero y agente de la Policía Local y se ha considerado adecuado modificar los perfiles lingüísticos de los citados puestos del 2 al 3, con carácter preceptivo.

Al efecto, se ha solicitado el preceptivo informe a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, quien ha dado su conformidad a la propuesta planteada.

No obstante, motivos organizativos y de oportunidad, aconsejan modificar en este momento únicamente el perfil lingüístico del puesto de agente primero.

